

...eta **kitto!**

760 zkia. 2011-IV-15

ASTEKARIA

TOKIKOM



80 URTE GEROAGO

Errepublika egunak

EIBARREN

mó
HAPPY
lens BETAURREKO-
PROGRESIBOAK
zorianotasun erantsiarekin

277€
BETAURREKO
PROGRESIBOAK

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Irribarrerik onena lortuko duzu
ortodontzia ikusezinarekin!



...eta atera egiezu etekina hortz-zuriketan ditugun
promozio bereziei.

Zatoz eta kontsulta egin



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Silbia

Hernandez eta Ander Salegi

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO IRUDIA:**

José López Blog Oficial

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"*k ez du bere gain hartzen*
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritziaren erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerak

HARJO.- Frutaren harra. "Aurtengo sagarrak, gehixenak harjua".**HARLOZA.-** Harlauza, harrizko losa. "Artaitxari aindu detsaraz harlozak, txarrikortia egiteko".**HARPIA JO.-** Adarra jo. "Harpia joten dihardu eta ez eixozu ezer sinistu".**HARRAK EGIN.-** Zerbait usteldu, alperrik galdu (haragiarekin erabiltzen da, normalean). "Hutsa denboran, harrak egin jakoz erosi dozun txarririk".

ESKUTITZAK


APIRILAK'15, ZURE URTEBETETZEA

Zenbat amets
geroari beti baietz
ta joan zinen tamalez

Urteak (3) joan egiten dira
zure oroitzapenak ez

Egunero zaitugu maite
bidai luze honetatik
noiz bueltatuko zaren galde

AUPA GAIZKA!!!
beti gurekin besarkada goxoetan




OHARRA: Aste Santuan, ohikoa denez, ez da astekaririk izango. Horregatik, **hurrengo alea apirilaren 29an** izango duzue zuen buzoietan. Bitartean, ondo pasa oporrak.

*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Indiako Gujarat estatuan bereziki zabaldua dago haurrak enkarguz mundura ekartzea: iaz 3.000 kasu izan ziren. Kostuari dagokionez, 13.000 eurokoa da; emakumeek 2.000-4.000 bitartean jasotzen du. Emakume horientzat bederatzita hilabeteak jauregi batean bizitzea dira: pagotxa dela aitortzen dute, ondoren estigmatizatutako izateko arriskua izan ohi duten arren. Tarte horretan, zainduta, medikuak artatuta eta ongi elikatuta egoten dira, eurak eta euren seme-alabak: gizartea, orohar, ez da horrela bizi"

(Itziar Alkorta, EHUko Zuzenbide irakaslea)

"Diskurtso hegemonikoak argumentu asko darabiltza elkarren arteko elkarbizitzaren alde, baina pisuzko bakar bat ere ez euskararen alde: ezin du euskararen aldeko diskurtso eraginkorrik eraiki, espainolismoaren argumentu gihartsuenak galbahean jarri gabe. Onean, gorrarena egitea dute irtenbide -hizkuntzez dihardugularik, ondo dator esamoldea: zer doakit niri horretan, nik ez baitut arazo hori? Baina, arazoa sentiarazten bazaie sentiarazi litekeen modu bakarrean, hizkuntza praktikatu, gu omen gor intoleranteak"

(Anjel Lertxundi, idazlea)**EIBARKO
UDALA****GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

EAJ ETA BUEN-EN ADIERAZPENAK

Teknikerrera egindako bisitan Miguel Buenek jeltzaleen gestioa kritikatu ostian, Eva Juez EAJ-ko alkategaixak Foru Aldundiak Eibarren egindako inbersiñuen inguruan "irakorketa parziala" egittia egotzi detsa eta, gainera, Buenek gure herrixari egindako aportaziñuak "kalterako" izan dirala diño.

LUCIO HERNANDO

Pasaiaiko Portuko Agintaritzako presidente barrixa Lucio Hernando eibartarra izango da, Miguel Buen ordezkatzan. Donostian 1952xan jaixotako ingeniari Eibarren hazittakua da eta enpresa gestioari lotutako biharretan ibilbide luzia egin dau. 2009az geroztik Miramongo parke teknologikoko presidentia da.

ASTE SANTURAKO MEZAK AZITTAINEN

Azittaingo Jasokunde elizan meza berezixak ospatuko dittue datozen egunotan, Aste Santua dala eta: apirilaren 17xan (Erramu domekan) 11.00etan izango da erramuak bedeinkatzeko mezia, hurrengo egunian 19.30xetan Garizumako gogoeta egingo dabe, Martitzen Santuan 19.30xetan alkaturiko aitortzaren ospakizuna, Egun Santuan (21ian) 19.00etan Jesusen Azken Afarixaren mezia, Barixaku Santuan 17.00etan Jesusen Pasiño eta Heriotzaren ospakizuna, hillaren 23an 20.00etan Bazko Gabaren ospakizuna eta hillaren 24an, Pazko Domekan, 11.00etan izango da Jesusen Piztuaren mezia.

Bixar gogoratuko dau Ezker Batuak Errepublikia

EGUAZTENIAN AURKEZTU EBEN EZKER BATUA-BERDEAK ALDERDIXAREN EGOITZAN II. ERREPUBLIKAREN 80. URTEURRENAREN HARIRA antolatutako programaziñua. Azken urtiotan egindakua bidetik, Ermutik 10.15etan abiatuko dan Martxa Errepublikanurekin hasiko dira ospakizunak. Eibarreraiño oiñez etorriko dira parte hartze- ra animatzen diran militante guztiak eta Untzagan ongietorrixa emongo deste 11.30xak aldera. Ondoren, 12.00xetan alderdiko hainbat ordezkariaren hitzaldixak hasiko dira. Elixabete Gómez Eibarko koordinatzaillia izango da lehena eta haren atzetik Serafin Llamas, Isabel Salud eta Mikel Aranaren txandia izango da.

Behiñ horrek amaittuta, 12.30xetan Teatro Interior taldiaren eskutik poesia errezitala egingo da eta tartian, 1931ko apirilaren 13ko goizaldia goguan, ekitaldi honetarako bereziki idatzitako poesia bat lehelengoz entzuteko aukeria izango da. 13.00ian Marcelo Usabiagak eta M^aLuisa Lekunberrik jasoko dabe banderia eta 14.15etan Txaltxa Zelaixan herri-bazkarixa egingo dabe, (musika kioskuaren aldameneko parkian). Marmittakua, frutia,



Ezker Batua taldeko ordezkariak urtero ospatzen dabe II. Errepublikia. / SILBIA HERNANDEZ

ogixa, ura eta ardaia egongo dira bazkaltzeko eta jatekua Ezker Batuak-eko kidiak preparauko dabe. Antolatzailleri lana errazteko, alde z aurretik izena emon bihar dabe jua nahi dabenak (gaur da azken eguna eta 943474277 telefono zenbakira deitu bihar da).

Bestalde, Bilbotik autobusa urtengo da (09.00etan Zunzundegi-tik) eta Ermuan geratu egingo da, Eibarrera oiñez etortzerik ez dakeneri autobusa hartu eta bertan etortzeko aukeria eskintzeko. Bilbora bueltia 17.00etan izango da.


Debabarrenako ordezkariaren kritika

Ekitaldixak ezagutzera emon teko presentaziñuan, Juan Sánchez Vallejo Debabarrena-

ko taldiak siñatutako idatzixaren gaiñian jardun eban berbetan. Bestiak beste, gogor kritika eban beste alderdi batzuen jarrera: "Errepublikanua izan diran PNV eta PSOE moduko alderdixak erreibindikatibuak izatiari laga eta Errepublikia pasautu dagan eta bueltatzia nahi ez daben zeozer moduan gogoratu eta ospatzen dabe. Ezker Batuak Errepublikaren eguna jai izateko proposamena egiñ eban, baiña ekimenak ez dau oihartzun haundirik euki. Halanda be, geuk eta beste alderdi txiki batzuk be benetan siñesten dogu Errepublikan eta horren alde jarduteko asmua daukagu. Eibarren banderia jasotzen alkatia egon biharko litzake eta apirilaren 14a herri-xan jaixa izan".

Errepublikiarekin lotutako hainbat ekitaldi izan dira

EZKER BATUAK EZ EZE, ALDERDI SOZIALISTAKUAK ETA ARALARREK BE II. ERREPUBLIKIA EUKI EBEN GOGUAN ATZOKUAN, txapligu eta beste-lakuekin. Bestalde, astelehenian hasi eta eguaztena bittartian, hitzaldi bana eskindu dabe Kirmen Uribek, Jose Antonio Fraguas "Forges"-ek eta Jesus Gutierrezek. Idazle ondarrutarrak Lauaxeta, Lorca eta beste hainbat goguan izan zittuan berbaldixan; "Forges"-ek, hillaren azken eguneraiño Portalean ikusgai dagan biñeta erakusketaren izenburu berari segidu zetsan hitzaldioxa emon eban; eta Gutierrezek, bestiak beste, Eibarko Institutu Elementala eta bertako irakasliak ekarri zittuan gogora. Udalak antolatutako programaziño berezixa biribiltzeko, Teatro Interior taldekuak "Republicados" antezzlana eskinduko dabe martitzenian, hillaren 19xan.




Gutiérrez, De los Toyos eta Irisarri aurtengo egitarauaren aurkezpenian. / SILBIA HERNANDEZ



Aste Santuko ordutegixak

PEGORA EGUAZTENIAN, HILLAREN 20-XAN ITXITTA EGONGO DA ARRATSALDIAN ETA PORTALEA, BARRIZ, apirilaren 21etik 25era bittartian ez dabe zabalduko. Udal Kirol Patronatuko instalaziñuak, barriz, ordutegi berezixa eukiko dabe datozen egunotan Aste Santua dala eta: Ipurua kiroldegixa 09.00etatik 13.00era zabalduko dabe hillaren 21, 22, 24 eta 25ian. Aste Santuko zapatuan goizetik ez eze, arratsaldez be zabalduko dabe 16.00etatik 20.00etara. Unbeko kirolgunia, bestalde, 09.00etatik

21.00etara egongo da zabalik hillaren 21, 22, 24 eta 25ian. Hillaren 23an (zapatua) arratsaldez be zabalduko dittue instalaziñuak, goizeko 09.00etatik 22.00etara. Eta Orbeako kiroldegixak be ordutegi berezixan zabalduko dittu atiak datozen egunotan: jai egunetan 09.00etatik 14.00etara egongo da zabalik eta hillaren 23an goizetik ez eze arratsaldez be egongo da instalaziñuak erabiltzeko aukeria, 17.00etatik 20.00etara. Apirilaren 26xan, mantenimendu biharrak egin bihar dittuela eta, itxitta egongo da.




Ziklomotorrendako azterketa teknikua

MAIATZAREN 4AN ZIKLOMOTORREN AZTERKETA TEKNIKUA EGINGO DA EIBARREN, ZEZEN PLAZAN, 09.00etan hasi eta 14.00xak arte. Azterketa egin nahi dabenak aurretik txandia hartu biharko dau, Udaltzaingora deittuta (943708424 telefono zenbakira). Azterketaren prezi-

xua 24'80 eurokua izango da eta 10 bat miñutuan amaituta egongo da, aurreikusittakua betez gero. Azterketa egittera juaun aurretik, kontuan euki eruan biharreko agirixak zeintzuk diran: zirkulaziño-permisua (originala), Ezaugarri Teknikuen Txartela eta indarrian dagan aseguria.

auzoric auzo



Txontarako planari heldu detse atzera be

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza saillak, Eibarko Udalak eta Txontako industrialak alkarrekin ekin detse Txonta auzua zaharbarritzatzeko plana atzera be berreskuratze ahalegiñari. Administraziño bixen artian daken "Txontan protekziñoeko etxien promoziñoerako" izenburuko hitzarmenian jaso dittuen plan barrixak izan biharreko ezaugarrixak eta segidu biharreko pausuak: lehenik eta behin, Txontako tallarrak hartzen dittuen eraikiñak Eusko Jaurlaritzak erosi biharko dittu, jabiekin negoziau eta adostasuna lortu ostian. Horren harira, aurreko astian bertan Txontan daguazten 14 industrialetako 12kin banan-banan batu ziran, enpresa bakotxaren premiñak bertatik bertara ezagutzeko asmuari jarraituta. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza saillak Sprilur alkarte publikuari Matsarixako industrialetako barrixan libre daguazten pabillioiak erosteko asmua daka, Txontako industriak bertan kokatzeko. Hortik aurrera, Eusko Jaurlaritzak auzuan protekziñoeko etxiak jasotziari ekingo zetsan, Txontako tallarretako jabi izango litzaken neurrixan. Eibarko Udalak, barriz, planak aurrera egitteko erreztasunak emoteko asmua agertu dau.

eibar kaleka

Torrekua kalia

Osakidetzako osasun zentruak eta inguruak, Alfa lantegi barrixak hartzen daben zatixa barne, daroiate Torrekua izena, XX. gizaaldiko lehelengo erdixan desagertutako etxia goguan. Zugastiren "Formen dantza" eskultura dagan tokixari be hala esaten jako, han inguruan desagertutako basarri eta zubixaren izena "Kakalardokua" bazan be.

Pegora kopurua: 3

Erroldatutakoak: 0



asteko

9'3

datua

millioi euroko inbersiñua egin dau Udalak kirol arluan, hortik erdixa baiño gehixago, 5'2 millioi Orbeako kiroldegixan. Kanpoko igerilekuak haunditzeko 1'4 millioi gastau dittue, padel pistetan 751.411 euro eta Sautsin eta T. Anituako kantxetan 384.000 euro.

XXI. Toribio Etxebarria Sarixak banatu dira

AURTEN XXI. EDIZIÑUA BETE DABEN TORIBIO ETXEBARRIA SARIXAK 1990. URTIAN HASI ZIRAN ANTOLATZEN eta irabazlieri premixuak banatzeko ekitaldixa aurreko astian, apirillaren 7xan egin zan Coliseo antzokixan. Azken urtiotako martxari jarraituta, banatzen diran premixu guztiak Eibartik kanpora jua dira oinguan be (hiru Donostia-*ra*, bat Itziarrera eta beste bat Bilbo-*ra*). Gertuen geratu dan sarixa Mendaroko Egile XXI taldiak eskuratu daben Bikaintasun Ekintzaillari Aitortza Sarixa izan da. Bestela, Enpresa Asmueri Sarixa Donostiako


“Wattio, Sistema de Ahorro Energético”-k (efizientzia energetikorako balixo altuko konponbide teknologikuak) eraman dau; enpresa asmuetan, teknologixa arloko sarixa Donostiako Luix-ek jaso dau; enpresa barrixeri sarixa Donostiako Regenniak (hazte faktoriak dittuen agente birsortzailliak, osasun alorrera zuzendutako aplikaziñuak: dermikuak, traumatologikuak, estetikuak...); enpresa barrixen atalian, teknologixa alorreko sarixa Itziarko Reiner Microtek-ek; eta naziñoartekotziari babesa sarixa, Bilboko “Axia Ingeniería y Soluciones SL” enpresarendako izan da.



San Andres pasialekuaren azken egunak

DATORREN ASTETIK AURRERA SAN ANDRES PASIALEKUKO 6 ETA 7 ZENBAXAK ERAISTEKO DANA PREPARATZEN HASIKO DIRA, Udaleko Hirigintza sailak emondako informaziñuaren arabera. Egunotan bertan bizi diranak etxiak hustu eta bizitzeko toki barrixak billatzen jardun dabe, bertako jabiak pegora bixak botatzeko enpresia kontratatu eta etxiak hustutzeko aginduak jakittera emon ondoren. Pegora bixak Alfako etxietatik gertuen daguazen bixak dira, Hilbehera eta Ryder tabernen gaiñekuak hain zuzen be.

Etxietan bizi ziraneri oin dala aste batzuk esan zetsen etxiak lagatzen jua bihar ziralara, baiña tabernen kasua oso bestelakua izan da, martitzenian bertan erregular, zabalik eta biharrian jardun eben eta. Izan be, hasiera batian



6. eta 7. peorak dira botako dittuenak. / SILBIA HERNANDEZ

etxiak abuztuan botako zittue-*la* esan zetsen eta epe hori euki dabe buruan, azken egunotan prozesuak bestelako norabidia hartu daben arte. Udalak edifizio bixen egoeria “oso arriskutsua” dala erabagi eta pentsauta eguanaren aurretik etxiak botatzeko trami-*tiak* azkartu ditu. Tabernari-

xen artian hasarria nagusi da, bestiak beste tabernak itxi eta hustutzeko Udalaren agindua eguazten eguardixan jaso ebelako. Aginduari jarraituta, atzo bertan tabernak itxi bihar izan zittuen eta agindua jaso ebene-*tik* 72 orduko tartia emon detse barruan eguan guztia etarartzeko. Tabernak behin-betiko itxi aurretik, eraikiñaren segurtasuna bermatzeko neurrixak hartu eta udara arte biharrian segitzeko ahal-*legiñak* egin dittue tabernarixak, “baiña

Udalak ez desku beste aukerarik emon, tabernak itxi eta legiak emoten dittuan 72 ordu horretan eruan bihar dittugun gauzak bertatik etaratzes-*terik* ez desku laga”.

Gauzak holan, “oin momentuan krisi ekonomikua horrenbeste aittatzen dan sasoian martxan daguazen negozio bi-*ixtia* eta bertako bihariñak kale gorrixan lagatzia ez da ba egokixena. Lanpostu zuzenak eta ez zuzenak kontuan hartuta, 30 bat bihariñeri eragitten detsa erabagixak eta hori ez da txantxetaku. Gaiñera, tabernak zabalik egon diran bittartian geuk emon detsagu bizittasuna kaliari eta oiñ holan eskertzen deskue hónek urte guztietan egin dogun biharra”.

Bost tabernak pegoriaren egoeria bestelakua da eta eguazten gabian bertan etxietako zein lokaleko jabiak bille-*ria* zeken, etxia reforzau edo botatzia erabagitzeko. Eraikiña botako ez dabela argi daken bakarrak 3 zenbakikuak dira, oin dala urte batzuk zaharbarrittu eben Modas Arrizabalaga gaiñeko etxeuak.

Gaztetxe Eguna ospatuko da

EIBARKO ASANBLADA BARRIXAK GAZTETXE EGUNA OSPATUKO DAU APIRILLAREN 30-IAN, Txaltxa Zelaiko parkian. Erredakziñora bialdutako idatzixan jasotakuaren arabera, Gaztetxe Eguna ospatzeko programa-*ziñua* oindiok preparatzen dihardue, baiña bestiak beste “herri-bazkarixa, bakarlarixak, kontzertuak eta musikia” ez dirala faltako aurreratu dabe antolatzailliak.


Gero eta enpresa gehixaguetan dihardue biharra egiteko sistemak aldatzen eta, hórren artian, etxetik lan egitekua da holakuetako bat. Toki guztietan holako sistemarik ezin bada be martxan ipiñi, badira aprobetxamendu gehixago emoten dabela diñuenak; dana dala, holakuetan erresponsabilidadia ezin falta. Idea ona da?

Zelan ikusten dozu etxetik lan egittia?



ARITZ GARRATZEN
33 urte
taillarreko bihargiña

Ahal dabenak aprobetxau deiala, ondo ikusten dot. Norberantzako denpora gehixago emongo dabela pentsatzen dot eta baita familixiakin denpora gehixago patszeko aukeria be.




JOSUNE SAN MARTIN
49 urte
etxeoandria

Erreztasunak emotia beti dago ondo, eta gaiñera konpensaziñorik badago, ba hobeto. Nik etxetik kanpora lan egin ezkeru gustauko litxakit aukera hori emotia, bittartian beste gauza batzuk egitteko denporia eukiko nebala pentsatzen dot.


BERTA LAMARIANO
63 urte
jubilaua

Ondo ikusten dot. Neurri horrek erreztu egin leike umiak eukitzia, familixiakin denpora gehixago egoteko aukeria eskaintzen dabelako. Neri aukera hori emongo baleste, aprobetxauko neuke, dudu barik.



JESUS ROTEGI
57 urte
pensionistia

Oso ondo. Etxetik egin leikian lana bada eta aukera hori emoten bada, zoragarri. Aisia hobeto banatuta eukitzeko eta gauzak hobeto planteatzeko aukeria emoten dabela begittantzen jata.



EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrista 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa labea
Egoibonari (Signo poligonari)
Partikulat, natua eta aseguru etxei zerbitzuak
Koroak - Ekialak - Urteumarako etxerak
Euskal Herri osoko ospitalelan bertzean 20. lugo
Nazio eta Nazioarteko tralagileak

Mugica Ehorzketa
Funerarioa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Paletilla iberikoa
Etxeko foie-a
Otarrainxkak plantxan*

Legatza labean

*Txerri iberikoaren sekretoia
edo Solomilloa plantxan*


*Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Arroztesne flana*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Tokia gordetzeko:
943206348


25 € + BEZ

Argazki erreportajea: SILBIA HERNANDEZ



Ederto ibilli giñan Bazkide Jaixan

Primera pasau eban eguna ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Bazkide Jaixan parte hartzerantz animau ziran 150 lagunak. Eguardixan piskolabisarekin hasi, alde osuaren erretrato dotoria etara, I Love Paella-ko mutillak preparautako paella ederrarekin jarraitu eta bazkalostian jaixak segidu eban, Zurrumurruka antzerki taldekuak umiendako preparautako tallarrekin, puzgarrixekin, eskulanekin... eta aurtengo nobedadia izan dan binguarekin! Dan-dana, gaiñera, Arno Dj-aren musika alaixarekin girotuta. Jaixan parte hartu eban guztieri milla-milla esker eta hurrengo batian be alkar ikustia espero dugu.



Tradizioari begiratu arren, sasoi batzuetako istorioak errekupeatzeko asmoz, etorkizuna du presente Joseba Tapia beti proiektuekin esku artean. Maiatzaren 20an izango dugu Eibarren, irailean kaleratu zuen "Eta tira eta tunba" bere azken lana aurkezten. Gure herrian Errepublikaldarrikatu zela 80. urteurrenaren inguruan antolatutako egitarauaren barruan eskainiko du kontzertua. Hilabetea dugu motorrak berotzen hasteko Joseba Tapiaren erromeriaz, "karlistetan eta liberaletan erreklutatu duen txarangarekin" gozaten hasteko unea iritsi arte.

JOSEBA TAPIA, abeslaria:



"II. Gerra Karlista bidegurutzeara izan zen"

- Zer abestuko duzu Eibarren? Azken diskoko lanak bakarrik, ala aurrekoak ere bai?

Azken diskoko abestiak aurkeztuko ditugu Eibarren. Pare bat urteko lana orain jendaurrean agertzeko unea da. Karlisten eta liberalen artean gertatua gogoratuko dugu. Kantutegi eder bat utzi ziguten, lekukotza ezinbesteko bat bertsoz eta errepikapenez betea.

- Aurreko lanekin parekatuz, zein ezberdintasun aurkituko du jendeak zuen lan berri honetan?

Beharbada ezberdintasun nabarmenena musika arloan ematen dudana izan liteke. Haizeko instrumentuak erabili ditut lehengo aldiz eta sonoritatea erabat ezberdina da. Tronpeta, saxofoi, bonbardino, tronboi, tuba... Banda militar, txaranga, musika banda berri bat sortzen saiatu naiz. Bestalde aurreko diskoekin konparatuz, kantuen egileak ezezagunak dira ia erabat. Serafin Barojaren pare bat agertzen dira. Baina deigarriena bi bandotakoek bertsoak euskaraz idatzi izana da. Hasieran elkarren kontra, gero gerra hasi eta egoera gogorrak, damua, haserre agertzen da. Bi bandotan euskaldunak zeuden eta desadostasun handiak zeuzkaten: bakoitzak modu ezberdinean ikusten eta desiratzen du Euskal Herria. Gure azken gerrate zibila zela esango nuke.

- Kantu batzuk musikatuak aur-

kitu arren, ez da hori gertatu guztiekin, ezta? 22 kantatik, sei kenduta, beste guztiei zuk ego-kitu egin behar izan diezulako musika...

Nire asmoa testu horien doinu orijinalak berreskuratzea bazen ere, gero zailtasunak izan ditut eta azkenean sei kanturen doinuak berreskuratu ditut eta besteiei neronek jarri diet doinua. Horretarako saiatu naiz lehengo bertsoak zaharrenean doinuak asmatzen. Halere, bertsoak baino gehiago kantuak direla esango nuke. Errepikapenez eta leloz bertsoak daudelako.

- Noizbaiten aipatu izan duzu ere zortea izan duzuela letra

horiek aurkitzean, beste inork ez dizuelako aurrea hartu...

Umore eta ironia piska batekin botatuko iritzia da, nola ez! Kantutegi hori norbaitek bildua eta argitaratua zegoen eta hortxe egon da, apalean, orain arte. Deskubrimetua izan da niretzat. Gerra garaikoak izanik ere, ederrak dira. Aspaldikoak dira, XIX. mende amaierakoak. Beraz, gure tradizioaren parte dira, gure historia eta kantutegiaren atal garrantzitsua. II. Gerra Karlista bidegurutzeara izan zen, ondoren etorriko zena ulertzeko ezinbestekoa. Hemen kontzientzia nazional bat zegoenez eta beren izatea arriskuan ikusi zutelako atera ziren

gerrara karlisten ondoan. Karlisten buruek eta sasoi aristokraziak ejerzito eskasa zutenez, baserritarrak berotu eta, konbentzitu edo engainatuta, lortu zuten indar handia.

- Liberalen eta karlisten abesten arteko orekari eusten ahalagindu zara, alde bietako kantuak eskainiz? Zergatik gerra sasoietako gaien lantze hori?

Kasualitatea izan da. Testuak irakurri eta biltzen ari nintzela kantutegi hau deskubritu nuen. Ez nintzen segituan maitemindu. Bigarren begiratuan lozorrotik esnatu eta bete-betean murgildu nintzen barrura. Gero, karlisten eta liberalen bertsoak irakurrita, bien arteko oreka batean hautatu behar nuela iruditzi zitzaidan: bien ikuspegia agertzea nahi nuen. Ezin nuen bando batera lerratu. Biena behar nuen Euskal Herri hartako arazoa konprenitzeko.

- Zer da zuretzat Eibarko plaza? Gogoratzen dituzu aurretik hemen emaniko kontzertuak?

Batez ere Tapia eta Leturia taldearekin egin ditut emanaldi gehien; erromeria ederrak antolatu ditugu bertan. Nire bakarkako bidean ere Coliseoa ezagutu dut eta aurkezpen batzuk egin naiz bertan. Gustura etortzen naiz Eibarrera. Historia handiko herria da hau: euskal sozialismoa hemen sortu zen. "Elgetaren" bailara da hau. Hemengo cabaretak ez ezagutu izana, nire pena. Zuen bailarak badu berezko soinua, ideologia, bolondres izaera...



Joseba Tapiaren azken lanaren azala.

Argazki erreportajea: SILBIA HERNANDEZ

Korrika 17




Eibarren




















Korrika

Argazkiak: KOLDO MITXELENA



Txikia




Asier Serranoren**kolaborazioa****Heriotza zigorra**

Maitasuna jotzen eta larrua egiten zen erresuman, lekuko izatea gura ez zuten atso zelatariek ekialdetik estraperloan ekarritako abanikoeekin estaltzen zituzten betzulo hanpatuak. Damu lotsa finaz baino, gaitzidura larriaz makillatu zituzten betileak epailearen aurreko aitortzan. Aitarenga eteten zuten ikusitakoaren kronika, eta areto nagusiko takigrafo koitaduak sistema laburtu bat asmatu behar izan zuen atsoen hasperen jarraituak aktan jasota gera zitezen. Bi epaituen abokatuari pornografia amateur arina begitandu zitzaion zelatarien adierazpena, eta betaurrekoen alanbrea miazkatzera mugatu zuen galderetarako zeukan tartea. Fiskalak, lekukoaren artean kafeinazko pilulak eta paperezko zapiak banatzeari utzi eta harro bota zuen bere eskaria: "Heriotza zigorra".


Epailleak bere hautua jakitera eman bitartean, bi kondenatuek astia izan zuten ezpain keinu iheslari batekin, musu hark, heriotza zigorra baino sententzia larriagoa ere merezi zuela elkarri adierazteko.

musika**Bertan Bera**
Zure esku

2006an Gernikan sortzen den Bertan Bera taldeak demo bat eta disko bi kaleratu ditu. Punk rocka edota hardcore melodiakoa da laukotea den talde honen estiloa. Disko berri hau hamabi abestiz osaturiko hilabeteetako lanaren emaitza da. Gaur egun oinarri sendoak dauzkate bere baitan, izan ere, garrantzitsua da azken urtean taldearen garapena bai konposizio aldetik, lokalean, eta baita zuzenean ere.

**Jare**
Itxaropenaren ertzean


Hard rock, pop musika eta rock alternatiboaren artean kokatu beharko genuke talde hau. Esperimentazioa eta gaztetasuna biak daude proiektu honetan. Horren ideia 2010. urte amaieran sortu zen Mikel eta Gorka Bizar (Idi Bihotz eta Flynn Freak ohiak) anaiei ekimenez. Zazpi disko eta seirehunik gora kontzertutan parte hartu izan dute.

**Jeremias Erro**
Garabi suizidaren amodioak

Jon Konda ezkondu berria da Parisen ezagutu zuen Errusiaro opera-kantari ospetsu batekin, eta Iruñeko La Perla hotelan hartu dute ostatu lehendabiziko gau hori pasatzeko. Bat-batean, maitasunezko ohatzetik jaikiarazten dute, suizida bat Iruñeko Gaztelu Plazako apartakalekua eraikitzeke paratu duten garabira igo baita. Suizidak joko literario makabro bat proposatzen dio Jon Kondari.

Iñaki Irasizabal
Igelak benetan hiltzen dira

Kostako herri batean, zoritxar batek hautsi du ohiko patxada: neska gazte bat desagertu da; bahituta akaso, bortxatua eta eraila beharbada. Susmoak eta errezeloak pizten dira alde guztietan, eta ez dago arrasto garbirik. Poliziak emaitzarik lortzen ez duela ikusita, neskaren aita udaltzaina hasiko da bere kasa ikertzen, baita susmagarritzat jotzen dituenak xaxatzen ere. Bazterrak nahaste horretatik, baina, ustekabeko ondorioak etorriko dira.

**literatura**



Institutukoen “Egungo Islak” gaurtik aurrera Portalean

Arte Batxilergoa ikasten diharduten Ignazio Zuloaga institutuko ikasleek, azken urteotako martxari jarraituta, “Egungo Islak” izenburuko erakusketa zabalduko dute gaur 19.00etan, Portaleko erakusketa aretoan. Angel Guenaga irakasleak azaldu digunez, “*institutuan arte arloko ikas-*


ketak egiten dituzteen lanek osatutako erakusketa da batik bat, baina beste alor batzuetako ikasleek ere badaude. Bestalde, ikusgai egongo direnak kalseko lanak dira eta, beraz, ez daude guztiz amaituta, baina arteari, gizarteari eta etorkizunari begira egindakoak dira”. Margoak, marrazkiak, argazkiak,

keramikazko piezak... hainbat teknika eta material erabilia sortutako eskulturak, diseinu grafikoak, collageak eta bestelakoak biltzen dituen erakusketa apirilaren 30era arte egongo da martxan eta ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango du nahi duenak, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

Pazko Astean zabalduko da Indianokua gaztelekua

Hilaren 26an, martitzenean, zabalduko ditu ateak Indianokua gaztelekuak, Muzategi kaleko etxe berrietan, eta egunean bertan ekingo dio hilabete amaierara arte garatzeko prestatu duten egitarauari. Martitzenean bertan karaokea eta merendola egingo dituzte, hurrengo egunean (27an) Play Sation edota Wii txapelketak jokatu dira eta eguenerako futbito txapelketa prestatu dute (parte hartu nahi

dutenek martitzen eta eguaztenean izena eman beharko dute). Asteburura ailegatuta, berriz, hilaren 29an (barixakua) DJon-ek jardungo du musika eskaintzen eta zapatuan, gaztelekuko sukaldetxo estreinatzeko sukaldaritz taillerra egingo da. Parte hartzera animatzen direnek pizza egiten ikasiko dute. Pazko Aste-rako ordutegia honakoa izango da: martitzen, eguazten eta eguenean 16.30etatik 20.30-



Aste Santua pasata, hilaren 26an zabalduko da gazteleku berria. / ANARTZ MITXELENA

etara, barixakuan 16.30etatik 21.00etara eta domekan 21.00etara, zapatuan 17.00-17.00etatik 20.30etara.



Azitaingo ikastetxean egiten diren artean, besteak beste, play-back txapelketa dago.

La Salle Astea agurtuko dute gaur

Astehenez geroztik ospatzen dihardute La Salle Astea herriko ikastetxe bietan, Isasin zein Azitainen. Txikienen kasuan, eta ohiko martxari jarraituta, ikastetxeko ume guztien partehartzea izaten duten jolasak antolatu dituzte aurten ere. Talde bien (bikoiti eta bakoiti) arteko lehia gaurko olinpiadekin batera amaituko da eta, aipatutakoez gain, aste hone-

tan bertan Aste Kulturala ere ospatzen dute, hainbat ekingitza garatuta euskeraren erabilera umeen artean indartzeko asmoari jarraituta. Azitaingo ikastetxean atzo play-back txapelketa izan zuten eta gaur jolas eta herri-kirolekin amaituta, bakailao lehiaketa jokatuzkoa zen eta, oporrak hartu aurretik, Argazki Rallyan egingakoa ikusteko aukera izan dute ikasle zein irakasleek.

CREMIOEN

GIDA



ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa
Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia Ebanisteria
Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak, armairu enpotatuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK

*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BANTERUA
ARREGLATUAK
BERRIKONSTRUKTIOAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
ETA B.S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioa
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apaintaketak
• Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

CRISTALUX

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

crystaluxbe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa: 943 20 65 08
Mobila: 659 58 35 32

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etoko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

PINTURAK

AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura
Goi mailako
dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98



irazabal

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

SARRILAGINTZA



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Pinturas
Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura
mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

Domekan gimnasia erritmikako Gipuzkoako txapelketa Ipuruan

IPURUA KIROLDEGIAK HARTUKO DU ETZI GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO GIMNASIA ERRITMIKAKO TXAPELKETA. Ipurua Klubak zazpi ordezkari izango ditu lehiaketa horretan: Carmen Gamundi, Olatz Ibaibarriaga eta Olatz Laskurain senior mailan, Kristina Alegría eta Irati Yarza juniorretan eta Noelia Bedia eta Raquel Guerra infantil mailan.


Aurreko asteburuan, bestalde, Arrasaten jokaturako B Eskolarteko bigarren kanporaketan, Ipuruako alebinen taldea (Arrate Baroja, Miren Bastida, Ane Dávila, Alaia Elgeta, Ainhoa Muñóz eta Enara Zufiria) Gipuzkoako txapelketarako sailkatu zen; euretatik hiru banakako lehia ere jardungo dute. Nerea Dezak infantil mailan lehiatuko du. Eta lorpen bera eskuratu zuen kadete mailako taldeak A Eskolartekoan: Graxi Arregi, Nahia Bilbao, Olaia Golzarri eta Ane San Martinek osatzen dute Gipuzkoako txapelketan parte hartuko duen taldea.



Taldea domekan, Euskadiko txapelketa irabazi eta gero.

Ziaran junior onena izan zen Gernikako duatloian

AURREKO ZAPATUAN GERNIKAN JOKATUTAKO XVI. SPRINT-DUATLOIAN ANE ZIARAN EIBAR TRIATLOI TALDEKO ORDEZKARIA junior onena izan zen; horrez gain, sailkapen absolutuan ere hamar onenen artean sartzea lortu zuen. Bere denbora ordu-bete eta 27 minutukoa izan zen, irabazlearengandik 13 minutu eta erdira gutxi gorabehera. Bihar Arrigorriagako XIV. duatloia izango da jokoan.



Taldea domekan, Euskadiko txapelketa irabazi eta gero.

Arrateko jubenilak Euskadiko txapeldun nagusitasun osoz

DENBORALDI BIKAINA DIHARDUTE EGITEN FERNANDO FERNÁNDEZEK ETA PABLO ARANZETAK PRESTATZEN DITUZTEN MUTILEK eta, porrotik gabeko ikasturtean, Euskal Herriko talde onena osatzen dutela erakutsi dute berriro ere. Ipurua kiroldegian aurreko asteburuan jokaturako Euskadiko txapelketako azken fasean, eibarta-

rrek Zarautzi (30-23), Bidasoari (33-23) eta Loyola Indautxuri (43-18) nagusitu zitzaizkien; Arrate izango da, Bidasoarekin batera, Espainako txapelketako azken fasean jardungo duena. Bestalde, Eskubaloiko Euskal Federazioak Eibarko taldearen Sergio Fernández izendatu zuen denboraldiko jubenil mailako jokalaria onena.

Foball-zaletuaren liga gero eta estuago lidergo postuetan

DURANGOK AZKEN JARDUNALDI BIETAN IZANDAKO ESTROPOZUEKIN ASKO ESUTUTU DA LIGA GOIKO POSTUETAN; hainbeste sailkapeneko lidergoan berdintzeraino. Teknografik eta Durango berdinduta daude 53 punturekin eta orain dela aste bi urritu zen JoserAuto puntu bira dute, 51rekin, eta berriro txapeldun izateko itxaropen berrituekin. Azken jardunaldian, JoserAutok 7-0 irabazi zion Tanke-mans-i, Teknografikek 5-0 So-



mos Sporting-i eta Durangok 0-2 galdu zuen Esmorgarekin. Hiru jardunaldi falta dira liga amaitzeko eta jardunaldi honetako partidurik garrantzitsuenak JoserAuto eta Esmorgaren artekoa izango da (bihar, 10.30etan).



Juan Luis Ordorika Arizmendiarieta

II. Urteurrena 1966-IV-02 - 2009-IV-13

*Urak dakarrena urak darama
Zuk emandakoa gurekin geltitzen da*

ZUIRE FAMILIA



Urrezko eta zilarrezko hiruna domina Logroñoko Judokitan


ZAPATUAN LOGROÑOKO LOBETE KIROLDEGIAN JOKATUTAKO JUDOKITA NAZIOARTEKO II. TORNEOAN, 300 BAT JUDOKEN PARTE-HARTZEAREKIN, urrezko hiru domina eta zilarrezko beste hiru lortu zituzten Kalamuako ordezkariak. Azken aldian daraman martxari helduz, Nekane Muguruzak podiumaren goiko aldean ikusi genuen berriro ere eta bi mailatan gainera: bera izan zen onena infantiletan zein jubeniletan. Eibartarrentzat urrezko hirugarren domina Iker Gorostizagak irabazi zuen alebin mailan eta zilarrezkoaren jabe egin ziren Iker Martínez eta Roberto eta Adrian Riaño.

84 bolari Asola-Berriko tiraldian

BAINA GARAIPENA EZ ZEN ETXEAN GERATU ETA SAN MIGUELEKO IKER IZAGIRREK BETE-BETEKOA lortu zuen sei txirilo botata; bost bota zituzten Sergio Rodríguez eibartarrak eta Angel Ibarluzea elgoibartarrak eta 4rekin geratu ziren beste hiru lagun. Horren ondoren, San Migueleko Imanol Osoro da Gipuzkoako txapelketaren liderra, 17 txirlorekin; txirilo bi gutxiago bota ditu Floreagako Erik Muñozek eta hiru gutxiago Asola-Berriko Arkaitz Rodríguezek eta San Migueleko Iker Izaguirrek. Bihar, 17.00etan hasita, hurrengo jardunaldia jokatu da Elgetako bolatokian.

Otxoa Memorialela jokatu da domeka goizean

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK ANTOLATUTA, OTXOA MEMORIALAREN 51. EDIZIOA JOKATUKO DA DOMEKA GOIZEAN kadete mailako txirrindularien artean. Irteera goizeko 10.30etan emango da Untzaga plazan eta 66 kilometroko ibilbideari egingo diote aurre parte-hartzaileek: lehenengo Elgoibarrera joko dute, jarraian Maltzagatik Eskoriatzaraino joateko eta han buelta eman eta Eibarreraino zuzenean etortzeko. Helmuga Urkizu pasealekuaren 11 zenbakiaren aurrean kokatu da eta lasterketa 12.10ak bueltan amaituko da.



Zirt edo zart egiteko sasoia heldu zaio Eibar Foball Taldeari

IAZKO ANTZERAKO MARTXAREKIN DIHARDU MANIX MANDIOLAK ZUZENTZEN DUEN TALDEA eta gero eta hauspo gutxiago sumatzen zaio azken partiduetan. Horren adibidea izan zen zapatuan Logroñésen aurka Ipuruan jokatuako neurketa: gola sartzeko aukera gutxi izateaz gain, azkenean partidua galdu zuten eibartarrek. Mirandés lidergoan gero eta sendoago dagoenean, bihar Gasteizen borrokatu beharko du Eibarrek partidua aurrera ateratzeko, Alavés aurkari zuzenaren aurka (ETB1-ek emango du zuzenean, 16.00etan). Zuzendaritzak, dena dela, taldea azken fase honi freskotasunez heldu diezaion, Aste Santuan Torrelavegako Gimnasticaren kontrako partidua aurreratzea erabaki du: Ipuruan Eguen Santuan jokatu da, hilaren 24an, 20.00etatik aurrera.

Maiatzaren 8an
Senpereko Aintziran

IRTEN: 09.30etan,
Ego Gainetik

BUELTATU: 19.00etan
- 9 euro -

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

LAKUBAT MUNDUAN!

laku bat munduan
Maitasunak 8
Senperekin!

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBARR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirurgia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Koloproktologia
6 Ortodontzia	13 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

Rugbilariak Arquitectura talde historikoaren aurka mendeku bila

IAZ GERTATUTAKOAREN AURKAKOA GERTATZEAREN ESPEROAN HARTUKO DU HIERROS ANETXE RUGBI TALDEAK MADRILGO ARQUITECTURAREN AURKAKO aurtengo lehia: orduan madrildarrek eibartarrei tokia kendu eta hauena hartu zuten Ohorezko B mailan eta orain alderantzizko egoeran daude: madrildarrak dira jaisteko egoeran daudenak eta eibartarrak mailaz igotzeko irrikitan. Joaneko partidua Unben jokatu da domekan, eguerdiko 12.00-etan, eta

itzulerakoa hemendik aste bira izango da Madrilan, maiatzaren 1ean. Etziko partidurako eibartarrek Antonio Gallastegiren baja izango dute eta Iñaki Aranguerenen parte-hartzea zalantzan dago; taldera bueltatuko da oraingoan Enrike Bastarrika.

Aurreko kanporaketako itzulerako partiduan, l'Hospitalet-ek 25-7 irabazi zion Eibarko taldeari; emaitzak kontrakoa adierazten badu ere, norgehiagoka askoz ere parekatuagoa izan zen eta eibartarrak aurretik ere joan ziren markagailuan (3-7).



Euskadiko taldekako squash txapelketa Durangon bihar

BIHAR JOKATUKO DA DURANGON EUSKADIKO TALDEKAKO SQUASH TXAPELKETA eta Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak zaila izango dute iazko edizioan Gasteizen lortutako txapela berriro ere janztea. Oraingoan, Alberto Ferreira eta Jon Losada klubeko ordezkariekin, Mundaizeko Luis Unanuek osatuko du hirukotea (azken honen klubak ez du talderik osatu eta eibartarrek lesio ugari dituzte).

Debabarrenako lau jokalarari areto-foballeko Gipuzkoako selekzioarekin

DEBABARRENA TALDEKO LAU JOKALARI DEITU DITUZTE EKAINAREN 18-AN JOKATUKO DEN ARETO-FOBALLEKO 18 URTETIK AZPIKO Euskadiko txapelketarako Gipuzkoako selekzioarekin jokatzeko. Aurredeialdi horretan sartu dira Rodolfo Fortunato (Brasilen jaioa) eta Michael Vidal eibartarrak, Adrián Ramírez ermuarra eta Iker Oñaederra elgoibartarra. Bestalde, aurreko asteburuan amaitu ziren kadete eta infantil mailako taldeen ligak eta hemendik aurrera biek txapelketa-ko play-offei ekingo diete.




Arrate - CAI Aragón, gaur 20.30etan

MAILARI EUSTEKO BESTE NEURKETA GARRANTZITSU BAT du gaur Arratek Ipuruan CAI Aragón aurkari zailaren aurrean. Neurketa 20.30etan hasiko da eta zaletuen laguntza behar du taldeak. Bestalde, atzo egin zen klubaren Ezohiko Batzar Orokorra estatutu berriak onartzeko eta gaur Eibar Plazara ekimena aurkeztuko da.

Bikeibar: zaletuen gune berria

AURREKO ZAPATUAN ESTREINATU ZUTEN TALDEAREN IZENA DUEN JANTZIA eta, baita, talde moduan lehenengo argazkia atera Untzaga plazan. Taldea osatzeko ekimena orain dela urte bi hasi zen forjatzen, blog baten bitartez taldekideen nondik-norakoak ezagutzera ematen hasi zirenean. Zapatuero herri inguruan jarduteaz gain, hilean behin beste paraje batzuk ezagutzeko egutegia prestatu dute. Horren berri izan nahi ezkerro, www.bikeibar.com helbidera jo dezakezue.



FORGES EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAREKIN.

Forges Eibarren izan dela aprobetxatuz, herriko txirrindulari elkartearen 85 urteak kontuan izan ditu eta baita marrazki bat eurei dedikatu.



EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

publi resa


- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea


☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Argazki erreportjea: ANDER SALEGI.



Samuelek irabazi zuen Arraten, Klodenek Itzulia

Eguraldia lagun izan zuen aurten Euskal Bizikletak eta horrela egokitu zen Eibar protagonista izan zen egun bietan ere. Eguenean Arraten amaitzen zen etapak jarraitzaile asko izan zituen errepidearen bazterretan eta, amaitzeko gainera, Euskalteleko Samuel Sánchezek irabazi zuen bigarren urtez jarraian. Azken sailkapenean, baina, podiumetik kanpo geratu zen asturiarra, Klöden irabazlearen, Horner-en eta Gesink-en mesederako. Barixakuko irteeran ere jende mordo bat zen Untzagara txirrundularien abian jartze hori ikustera, asko eta asko animatuz gainera autografoak biltzen. Une hungigarria ere izan zuen irteera horrek, hainbeste urtetan kirolaren alde egindako lana eskertu baitzioten orain dela egun batzuk hildako Azitain Erretegiko Jose Angel Estebani, bere alarguna eta semeei egindako omenaldian islatuta.



Datorren martitzenean, hilak 19, "Republicados" lanarekin esango diegu agur aurtengo Antzerki Jardunaldiei. Antzezlanak II. Errepublikaren sasoia izango du gogoan, eta horrez gainera 27ko belaunaldiko idazleak gertuagotik ezagutzeko aukera ere eskainiko digu. Radio Eibarko mikrofonoetatik taulara egingo du jauzi Juanma Cano irrati-esataria, aktore lanetan jardungo baitu antzezlan horretan.



JUANMA CANO, irrati-esataria eta aktorea:

"Egunerokotasunetik irteten laguntzen dit antzerkiak"

- Zeri buruzkoa da "Republicados" antzezlan?

II. Errepublikaren aldarrikapena izango du gogoan, gizarlean eman ziren aurrerapausoak, besteak beste, emakumeen botoa emateko eskubidea... Eta horrez gainera, 27ko belaunaldiko poetak ere aipatuko dira, baina horien lanen inguruan berba egiteaz gain, pertsona moduan hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du lanak.

- Zelan egin duzu jauzi antzerki mundura?

Kasulitate hutsa izan da. Hasiara batean Teatro Interior-ekoak poesia emanaldia egitea zuten pentsatuta, 27ko belaunaldiko poetei buruzkoa. Pixkanaka handitzen joan zen antzerki-lana bihurtu arte, eta muntaia handitzen joan den heinean, nire ilusioa ere handitzen joan da. Oso pozik nago, ilusioz beteta. Gainera, antzerkiak egunerokotasunetik irteten laguntzen dit.

- Zein izango da zure papera lan horretan?

Irrati-esataria izango naiz.

Erreza dirudi, nondik natorren kontutan izanik, baina elkarriketak egiten zituen pertsonaia izatetik, pisu handiagoa duen pertsonaia izatera pasatu naiz.

- Maite Lorenzo eta Eduardo Falces aktoreekin diharduzu Sardo Irisarriren gidaritzapean. Zelako esperientzia izaten ari da?

Oso ona. Giro zoragarria dugu, Maite eta Eduardo aktore bikainak dira, baina horrez gainera, entseguetan barre mordoa egiten dugu. Entsegurik ez dudan egunean zerbait falta zaidala igaritzen dut.

- Zelan uste duzu hartuko duela ikusleak antzezlan?


Nik uste dut oso ondo pasatuko dutela. Osagai asko dituen lana da: emozioa, poesia, umorea... Malkoa irteteko zorian daudenean, barre egitera pasatuko dira. Gainera jendea Maite eta Edu poesia errezitatzen entzutera ohituta dago, eta ezustekoa hartuko dute bestelako formato batean ikusten dituenean.



Bazkalostean giro onean jardun zuten dantzan erromerian. / MAIALEN BELAUSTEGI

Usartzako erromeria arrakastatsua

EIBARTARREKIN BATERA, MENDARO, MALLABIA, SALLABENTE ETA BESTE TOKI BATZUETATIK ETORRITAKOAK BATU ZIREN aurreko asteburuan Usartzako erromerian. Antolatzaileek "oso giro ona" egon zela azaldu dute eta honezkero urrian beste erromeria bat egiteko prest daudela aurreratu digute. Arraten meza entzun, txikiteoan ibili eta Krabelin hotelean bazkaldu ondoren, arratsaldean hasi zen 70 bat lagun batu zituen erromeria eta, aurreikusitako programatik kanpora, sorpresarik ez zen faltan izan: Duo Plaentxiko Jesus eta beste "espontaneo" batzuk dantzan zein kantuan ibili ziren, Angelito soinujoalearen saioa biribiltzen.




Irigoienek irabazi du Eguen Zuri argazki lehiaketa

ARRATE KULTUR ELKARTEAK ANTOLATUTAKO XIV. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKO JOSE LUIS IRIGOIEN IZAN DA (160 euro). Bigarren saria Bakarne Elejaldek eskuratu du (100 euro) eta hirugarrena Carlos Ramosentzat izan da (60 euro). Irabazleek martitzenean jaso zuten saria, Klub Deportiboan. Izan ere, Arrate Kultur Elkartearen lokala berritzeko beharrean dihardute eta, horregatik, aurtengo edizioiko sari-banaketa ekitaldia Deportivoan egin dute. Aurtengo edizioan 12 parte-hartzaile izan dira eta epaimahaiko kideek lanen kalitatea azpimarratu nahi izan dute. Horrekin batera eskerrak eman nahi dizkiete lehiaketan parte hartu duten guztiei "eta, bereziki, Klub Deportiboko Argazki taldeari, eurek emandako laguntza eta erraztasunik gabe ezingo genuelako aurtengoa aurrera atera".

“Tres” antzezlanaren emankizun bikoitzean

GAUR ARRATSALDE-ILUNTZEAN, ETA ANTZERKI JARDUNALDIEN XXXIV. EDIZIOA AGURTZEKO, JUAN CARLOS RUBIO-REN “TRES” ANTZEZLANA TAULARATU-KO DA funtzio bikoitzean (19.00etan eta 22.00etan, Hezkuntza Esparruan). Kiti Mánver, Nuria González, Aurora Sánchez eta Octavi Pujades aktoreak protagonista duen antzezlanean, 30 urtez elkar ikusi barik egon diren hiru lagun berriz ere elkartzean sortzen diren konfidentzia eta bestelako aitopenenak dira gidoiaren ardatza: ikasle ziren sasoia gogoratzeko aitzakiarekin berriz elkartzen diren hiru andrazkoak euren bizitzari buruz berbetan hasi eta, berehala, agerian



geratzen da zeinen bakarrik dauden hirurak. Inork ez du bere ametsik bete, bereziki amatsunari dagokionez, baina hortik abiatuta umorea nagusitzen joango da lan guztian. Amerikako hainbat herrialdeetako taulen gainean arrakasta

handia lortu duen lana Espainiako antzokietan erakusteko ordua ailegatu den honetan, lanaren sortzaileak berak dioenez *“inoiz amestu nezakeen aktore-multzoaren eskutik”* taularatuko da. Goi-mailako ikus-kizuna.

Fernando Morillo idazlea Aldatzen

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAK “IDAZLEAK IKASTETXEETAN” PROGRAMA ANTOLATZEN du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, irakurzaletasuna sustatzeko eta euskal idazleen lana ikasle eta irakasleen artean ezagutzera emateko asmoarekin. Horren harira, programan parte hartzen diharduen Aldatzek Fernando Morillo idazle azpeitiarraren bisita jaso zuen apirilaren 8an, ikastetxeak berak aukeratuta. 1. Ba-



txilergoko ikasleek *“Bihotz Nahasiak”* liburua irakurri eta egileak ordubeteko solasaldian bere lana eta beste hamaika kontu azaldu zizkien.

Gurasoak Berbetan martxa onean

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLA ETA SAN ANDRES IKASTETXEKO Haur Hezkuntzako gurasoentzako mintzapraktika taldeak jarri zituen abian orain dela hilabete batzuk. Lau taldetan

dihardue guraso euskaldun eta euskaldun berriak, 18 lagun guztira, eta astean behin elkartzen dira ordubetez, euskaraz berba egiteko helburuarekin. Datorren ikasturtean egitasmoa herriko ikastetxe guztietara zabaltzeko asmoa dauka ...eta kitto!-k.

laburrak

EMGE-REN KONTZERTUA
Zapatuan, 22.00etan, Txaltxa Zelaiko musika kioskoan kontzertua emango dute Willies Drummond eta Borrokan taldeek, Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak antolatuta.

IKASTEN-EKOAK OPORRETAN

Hilaren 18tik 23ra bitartean ez dute ekitaldi berezirik antolatu Ikasten-ekoek, Aste Santuan jai hartuko dute eta. Hilaren 27rako, baina, Klub Deportiboan solasaldia egingo dute 11.00etatik aurrera, *“El tiempo desde la filosofía”* izenburuari jarraituta. Maiatzaren 3tik aurrera ohiko martxari helduko diote.

HITANO IKASTAROA

Udalak, Udal Euskaltegiak eta Badihardugu Euskara Elkarteak elkarlanean hitano ikastaroa antolatu dute maiatzarako: 10 orduko iraupena izango duen ikastaroa martitzenetan emango da, 18.30etatik 20.30etara Udal Euskaltegian. Ikastaroak hitanoaren oinarriak jaso eta praktikatzeko aukera emango die ikasleei. Izena emateko epea maiatzaren 2ra arte egongo da zabalik eta Badihardugu Euskara Elkartera deituta (943 121775) egin daiteke. Ikastaroaren prezioa 10 eurokoa da.

SOSTOA ABESBATZA

Aurreko astean Markinako Xemein abesbatzak gonbidatuta han abesten jardun ostean, gaur 20.00etan Eibarren eskainiko dute kontzertua Sostoa abesbatzako kideek, markinarrekin batera, Karmelitetan.

aldatze

www.aldatze.org

Errenta aitortpena euskeraz egiteko aukera dago

MARTITZENEAN EKIN ZIO-TEN GIPUZKOAN 2010-EKO ERRENTA AITORPENA AURKEZTEKO KANPAINARI eta, horrekin batera, zergadunei gogorarazi nahi zaie nahi izanez gero aitortpenak euskeraz aurkezteko aukera bada-goela, aitortpenak egiteko dau-den modalitate guztietan (autolikidazio proposamenetan, mekanizatuan, telematikoa eta nork bere bidetik).

Udaleko Euskara batzorde-tik aditzera eman digutenez, "autolikidazio proposamenaren kasuan, zergadunak etxe-

an jasoko du proposamena, Foru Ogasunak eskura daukan informazioan oinarritua eta ontzat emateko bide bi daude, telefonoz edota internet bidez eta bietan erabili daiteke euskara. Mekanizatura, berriz, Foru Ogasuneko bulegoetan egiten da, hitzordua eskatuta. Bulegoan euskeraz egiten baduzu, langileak euskeraz beteko du errenta aitortpena. Telematikoaren bidea baimendutako erabiltzaileek har dezakete, batez ere finantza-erakundeek eta aholkularitza zerbitzuek erabiltzen dute.

Modalitate honetakoa euskeraz egin nahi bada, espreski adierazi behar da hala egiteko borondatea. Eta, laugarren kasuan, nork bere bidetik, inprimakia estankoetan erosi edo internetetik jaisteko aukera dago. Sinadura elektronikoa eta pasahitz operatiboa eskatuz gero, aitortpen osoa internet bidez egin daiteke. Inprimakiak elebietan daudenez, bakoitzak aukeratu dezake hizkuntza". Informazio osoa www.ogasuna.info blogean eskuragarri dago, "aipagarriak" atalean.



Aitortpenak egiteko modalitate guztiak egin daitezke euskeraz.

DENBORAPASAK

			6	9			8
						7	3
		5			2		
3				6			2 1
2							4
4	1			7			8
			8			5	
1		7					
	2			3	6		

AURREKOAREN EMATZA


SUDOKUA

4	9	2	1	6	5	7	3	8
6	3	1	4	7	8	0	2	5
5	7	8	0	2	3	4	1	6
2	5	0	5	8	4	1	6	7
3	4	6	7	0	1	8	5	2
1	6	7	2	5	6	3	0	4
8	1	5	6	3	7	2	4	0
9	8	4	6	1	2	5	7	3
7	2	3	5	4	9	6	8	1

UEUko argitalpenak erdi prezioan

DATORREN APIRILAREN 23-AN LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA DA ETA, HORI OSPATZEKO, UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK ESKAINTZA BEREZIA EGINGO DU astelehen eta martitzenean, hilaren 18 eta 19an, bere liburuak erdi prezioan eskainita. Eskaintza berezia www.ueu.org atariko webgunean egongo da indarrean soilik. UEUk 1978. urtean argitaratu zituen lehen liburuak eta harrezkero mota guztietako generoetan jardun dute: testuliburuak, saiakerak, goi-mailako dibulgazioa, erreferentziazko obren itzulpenak, doktorego-tesiak... UEUtik adierazitakoaren arabera, "es-

kaintza honen arrazoia apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela da, baina zapatua denez eta Aste Santuko oporrak tartean daudenez, eskaintza egun batzuk aurreratzea erabaki dugu, ahalik eta jende gehienak izan dezan eskaintza honetaz baliatzeko aukera. Guztira, 90 liburu izango dute beherapena".



Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko eskainiko ditu UEU-k beherapenak.



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA


EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK


BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 fax: 943 202564

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ANER Bergerandi Bastida gure printzeari, zortzi urte egin dozu-eta. Familixaren partez.



Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, atzo lau urte egin zenduazelako. Familixaren partez.



Zorionak, IZARO, hillaen 27xan lau urte egingo dozu-eta. Aitaxo eta amatxoren partez.




Zorionak, ANDER, hillaen 19xan hamabi urte egingo dozu-eta. Muxu haundi bat familixaren partez.




Zorionak, JULEN, bixar 12 urte beteko ditte-eta etxeko kirolarixak. Etxekuen partez.




Zorionak, IRATXE, astelehenian 11 urte egingo ditte-eta etxeko neska haundixak. Ondo pasatu, etxekuen partez.




Zorionak, AITOR, atzo urte bi bete zenduazelako. Aitxixa eta amamaren partez.




Zorionak, MARKEL, domekan bost urte egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Ongi etorri, apirillaren 6xan jaixo ziñan IRAIA. Zorionak aitaxo, amatxo eta Aneri.



Zorionak, MAITANE Romero Herrera, gaur urtia betetzen dozu-eta. Markel eta Danelen partez.



Zorionak, JULENE, Egun edarra pasatu gaur, merezi dozu-eta. Ibon eta gurasuen partez.




Zorionak, MIREN, hillaen 7xan zazpi urte egin zenduaz-eta. Familixa guztiaren partez.

zinea Coliseoan




"Soy el número cuatro"
Zuzendaria: D.J. Caruso
Aktoreak: Alex Pettyfer, Timothy Olyphant, Teresa Palmer, Dianna Agron


15an: 22.30
16an: 17.00, 19.45 eta 22.30
17an: 17.00 eta 19.30
18an: 20.30



Zorionak, ASIER, hillaen 11n bederatzi urte bete dozu-eta. Familixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, MARILO, harafigun urtiak egin zenduaz-eta. Familixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, MARIMAR (hillaen 9xan urtiak eginda) eta MARKEL (bixar egingo dozu bederatzi urte). Familixakuen eta lagunen partez.



"Sin límites"
Zuzendaria: Neil Burger
Aktoreak: Javier Beltrán, Robert Pattinson, Matthew McNulty, Marina Gatell


15an: 22.30
16an: 17.00, 19.45 eta 22.30
17an: 17.00 eta 19.30
18an: 20.30



Zorionak, PAKITA eta LUIS, zuon 55. urteurrenian. Urte askotarako. Muxu haundi bat, etxekuen aldetik.



Zorionak, IBON, astelehenian 15 urte egingo dozuaz-eta. Aittaren eta amaren partez, Aupa, txapeldun!



"Sin compromiso"
Zuzendaria: Ivan Reitman
Aktoreak: Natalie Portman, Ashton Kutcher, Cary Elwes, Kevin Kline

16an: 19.45 eta 22.30
17an: 19.30
18an: 20.30



"Justin Bieber"
Zuzendaria: Jon Chu
Pertsonaiak: Ludacris, Miley Cyrus, Jaden Smith, Usher Raymond, Justin Bieber

15an: 22.30
16an: 17.00
17an: 17.00

HILDAKOAK

- Mikel Ibáñez Oteiza. 56 urte. 2011-V-7.
- Teresa Arco Axpe. 100 urte. 2011-V-13.

JAOTAKOAK

- Pablo Aja Pampín. 2011-IV-3.
- Ibone Garmendia Soto. 2011-IV-4.
- Igor Souto Hernández. 2011-IV-5.
- Iker Calleja Pérez. 2011-IV-6.
- Mohamed Moad-Srhir. 2011-IV-7.

horoskopoa

ARIES

Orain ez zaitetz lotsatu. Nahi izan zenuelako egin zenuen, ezta? Batek baino gehiagok nahiko luke izan zuk duzun adorea.

TAURUS

Korrika bi urtetik behin izaten da eta zu ondo prestatuta joan zara, ezta? Argazki gutzietan agertu zara! Nahita ere, halakorik!

GEMINI

Nahi baduzu, zergatik ez duzu egingo? Ez beldurtu: sariak horrela daude. Zerbait lortu nahi baduzu, zerbait egin beharko duzu.

CANCER

Aste Santu bikaina pasatuko duzu. Astroak zure alde daude eta egun zoragarriak biziko dituzu. Tira ba, aprobetxatu aukera paregabea!

LEO

Ez baduzu gorputza gehiago zaintzen, Aste Santuan dituzun egun horiek ezin izango dituzu ganoraz pasatu. Kontuz ibili!

VIRGO

Nahi duzunean ederki egiten dituzu gauzak. Txarrena da gutxitan nahi izaten duzula. Zuk ikusi, badakizu gauza zarela-eta!

LIBRA

Lagun batek ez du bere unerik onena bizi egun eta zure laguntza ezinbestekoa izango da bere osasun mentalarentzat.

SCORPIUS

Ez baduzu modu onenean azaltzen ere, funtsean arrazoia duzu. Berriz azaltzen saiatu beharko zenuke, ea ulertzen dizuten.

SAGITTARIUS

Alai ibiliko zira datozen asteotan, oso pozik. Zergatik? Ikusiko duzu... Baina astroek sorpresa bikaina dute zuretzat: hori ere bai?

CAPRICORNIUS

Ez zara gutxirekin konformatzen eta gertatuko zaizuna, askorentzat zoragarria izan aren, zuretzat ez da aski izango. Gehiago behar duzu.

AQUARIUS

Mendira joateko egun aproposak izango dituzu Aste Santuan. Inoiz ez da berandu mendira joateko, zaletasuna berreskuratzeko.

PISCIS

Maitasunaren sareetan jausi zara eta seinale ona izango litzateke sare horretan harapatuta jarraitzea. Badago une hoberik, ala?

Barixakua 15

ERAKUSKETA

19.00.- "Eibarko Ignazio Zuloagaren Egungo Islak" erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

KONTZERTUA

20.00.- Sostoa abesbatzaren kontzertua, Markinako abesbatzarekin batera. Karmengo Amaren elizan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "Tres" (Mutis Producciones, Madril). Hezkuntza Esparruan.

Zapatua 16

II. ERREPUBLIKA

10.15.- Martxa Errepublikarraren irteera, Ermutik.

11.30-11.45.-

Ongietorria.

12.00.- Elixabete Gómez, Serafin Llamas, Isabel Salud eta Mikel Aranaren interbentzioak.

12.30.- Poesia emanaldia Teatro Interior taldearen eskutik.

13.30.- Errepublikaren bandera igotzea, Marcelo Usobiaga eta M^{re} Luisa Lekunberriren eskutik. Untzagan.

14.15.- Herri-bazkaria. Txalxta Zelaiko kioskoaren aldameneko parkean.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantu-ekoen irteera. Untzagan hasita.

Domeka 17

ARANTZAZURA MARTXA

08.25.- Arantzazuko martxara joateko autobusaren irteera. Ego Gaietik.

KORRIKA

08.45.- Korrikaren amaiera jaira Donostiara joateko autobusaren irteera. Ego Gaietik.

TXIRRINDULARITZA

10.30.- II. Otxoa Memoriala. Amaiera Urkizun 12.00etan.

MEZA

11.00.- Erramu-bedeinkazioa eta meza. Azitaingo elizan.

KONTZERTUA

12.30.- Usartza txistulari bandaren kontzertua. Untzagan.

Astelehena 18

MEZA

19.30.- Garizumako gogoeta: Kristorengan sinistea-fedearen ardatza. Azitaingo elizan.

Martitzena 19

MEZA

19.30.- Elkarturiko aitortzaren ospakizuna. Azitaingo elizan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "Republicados" (Teatro Interior, Eibar). Coliseoan.

Eguena 21

MEZA

19.00.- Jesusen Azken Afariaren meza. Azitaingo elizan.

Barixakua 22

MEZA

17.00.- Jesusen Pasio eta Heriotzaren ospakizuna. Azitaingo elizan.

Zapatua 23

MEZA

20.00.- Bazko Gauaren ospakizuna. Azitaingo elizan.

Domeka 24

MEZA

11.00.- Jesusen Piztueraren meza. Azitaingo elizan.

Martitzena 26

GAZTELEKUA

16.30.- Karaokea eta merendola. Indianokua gaztelekuan.

Eguaztena 27

IKASTEN

11.00.- Solasaldia: "El tiempo desde la filosofía". Depor tabernan.

GAZTELEKUA

16.30.- Play Station eta Wii txapelketa. Indianokua gaztelekuan.

Eguena 28

GAZTELEKUA

16.30.- Futbito txapelketa (aurrez izena eman behar da). Indianokua gaztelekuan.

ODOL ATERATZEA

18.30.- Odol-ateratzea odol emaileen elkartearen (Pagaegi, 3 behean).


ikastaroak

– **Hitano ikastaroa.**

Noiz eta non: Maiatzeko martitzenetan, 18.30-20.30, Udal Euskaltegian. Izen ematea eta informazioa: *Apirilaren 15era arte* (Udal Euskaltegian, 943700912); *Maiatzaren 2ra arte* (Badihardugu Euskara Elkarte: 943121775).

– **Sendian programa.**

Gaia: Mugitzeko ezintasuna edo zailtasunak dituztenei laguntzeko produktuen berri emateko ikastaroa. Noiz eta non: *Maiatzak 10 eta 12*, 15.00-17.00, Portalean (ikastaro gelan). Izen ematea eta informazioa: *Apirilaren 29ra arte*, Pegoran. Matrikula doan.



erakusketak

– Apirilaren 30era arte

“EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK”. Portalean.

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA-ren 85. urteurrenako erakusketa. Portalean (Armagintzaren Museoa, 5. pisuan).

JOSE ANTONIO FRAGUAS “FORGES”-en “La república en la persona muchos bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)”. Portalean.

KLUB DEPORTIBOko argazkilaritza taldekoen “Aratosteak” erakusketak. El Ambigú eta Portalea tabernetan.

“COLECCIONES”, Aula 7 argazkilaritza taldearen argazkiak. Depor tabernan.

II. ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENAREN 80. URTEURRENA-ren inguruko interesgunea. Juan San Martin liburutegian.



lehiaketak

– **Argazkilaritza Maiatzean lehiaketa.** Informazioa eta lanak entregatzea: Apirilaren 12ra arte, Klub Deportivoan.

– **Liburu ezkutaren bila.** Noiz: Apirilaren 2tik aurrera, Juan San Martin Liburutegian. Bizikleta zozketatuko dute kategoria bakoitzean joko osatzen dutenen artean.

– **Ixua-Valenciaga argazki lehiaketa.** Informazioa eta lanak aurkeztea: Maiatzaren 6ra arte, Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 behean) edo cce@clubciclistaeibarres.org

– **Sanjuanak 2011 kartel lehiaketa.** Informazioa eta lanak aurkeztea: Maiatzaren 13ra arte, Pegoran. Saria: 600 euro.

– **Sanjuanetan alkohol larregi ez edateko pegatina lehiaketa.** Informazioa eta lanak aurkeztea: Maiatzaren 13ra arte, Pegoran. Saria: 180 euro.

farmaziak

15. barixakua

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

16. zapatua

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

17. domeka

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

18. astelehena

EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)

19. martitzena

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

20. eguaztena

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

21. eguena

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)

22. barixakua

EGUNEZ Las Heras (Sostotarren, 10)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

23. zapatua

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

24. domeka

EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

25. astelehena

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

26. martitzena

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

27. eguaztena

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

28. eguena

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

29. barixakua

EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso argitsua, berriztuta eta bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. Prezio oso interesgarria. Tel. 627-084503 eta 943-127140.
- Apartamentu polita salgai Mendarón. Logela handia, egongela, sukaldea eta komuna. Berrria (2001ekoa). Bizitzera sartzeko moduan. 126.500 euro. Tel. 652-718426 eta 666-349860.
- Pisua salgai Barrena kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangelak eta komuna. Ilogailua eta fatxada berriztuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. 192.000 euro (negoziagarria). Tel. 626-100783 eta 943-254533.

1.2. Errentan

- 4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 685-380585.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 943-201106 eta 680-526228. Nuri.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-785393.
- Eibarren logela independentea alokagai. Komuna, mikrouhinak, telebista. Garajea aukeran. Tel. 652-765200.
- Barrena kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 697-721417.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea hartuko nuke alokairuan Ipuruako dorreen inguruan. Tel. 620-917212.
- Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
- Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.
- Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m² ingurukoa. Aterpearekin. Tabernarako egokia. Prezio ezinhobea. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai San Andres pasealekuan. 7 metroko trasteroarekin. Tel. 943-120308.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Asua-errekan. 22 m²koa eta itxia. Tel. 678-426136.
- Urkizu inguruan gazteentzako lokala hartuko nuke alokairuan. Deitu 20.30etatik aurrera. Tel. 656-736509.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 608-820954.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 646-506777.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-007271.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 626-068463.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 618-734000.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, nagusiak gauzez edo asteburuetan zaintzeko eta sukaldari moduan. Tel. 699-609190.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta dendan laguntzeko. Tel. 662-267569.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako, dendan laguntzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 649-008036.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientziarekin. Tel. 657-683887.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da orduka sukaldari moduan lan egiteko eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Gizona eskaintzen da txofer moduan eta lorezain moduan lan egiteko. Tel. 671-343612 edo 943-531931.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 605-129530.
- Neska eskaintzen da etxeak edo tabernak garbitzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-806348.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta elkarteak edo etxeak garbitzeko. Tel. 656-946074.
- Mutila eskaintzen da soldatzaile eta galdaragile jarduteko. Tel. 628-615057.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 660-919423.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Kamioi, taxi eta anbulantzia karnetekin. Tel. 663-656621.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 672-572526.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 627-031640.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 671-971930.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko ospitalean. Tel. 629-994385.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 618-354218.
- Gizona eskaintzen da gidari lanetarako. Karnet guztiekin eta furgonetarekin. Tel. 649-651000.
- Gaztea eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketarako, nagusiak zaindu... Tel. 689-974001.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.

- Emakume euskalduna eskaintzen da bulegoak garbitzeko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Tel. 678-972690 eta 943-530795.

4.2. Eskaintzak

- Kamareroa behar da taberna beretarako. Tel. 943-031253.
- Sukaldaria eta kamarera/o behar dira Aste Santurako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Irakaslea behar dut Batxilergo 2. mailako klaseak jasotzeko. Tel. 697-348080.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Bikiendako McLaren aulkia salgai. Erabat ekipatua. Tel. 600-866865.

6.4. Bestelakoak

- Katakumea hartuko nuke. Tel. 639-044748.

AURPEGI TRATAMENDUAK


Berehalako eragina duen

GAZTETZE TRATAMENDUA

ZIMURRAK



lehen




orain

MANTXAK



lehen



orain

Berria!

Mikropigmentazioa
Betileen luzapena / Gel azazkalak
Iraupen luzeko manikura eta pedikura

CAPI

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

Laser fotodepilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €

3x2

- OSTEOPATIA (burezurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
- KIROMASAJEA
- TEKNIKA METAMORFIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- REFLEXOLOGIA (ordubete)

Masajeak

35€

Tratamendu lipo-erreduktorea

5 saioekin

30 minutuko
masajea edo
erreflexologia
OPARI

BEGIBISTAKO
EMAITZEKIN
LEHENENGO
SAIOTIK

BERRIA

5 saio

150 euro

30/35 euro

saio bat

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskara tik
gaztelera ra,
gaztelera tik
euskara ra,
eta ingelese tik
euskara ra.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com

P
A
R
A
F
A
R
M
A
Z
I
A

D
I
E
T
E
T
I
K
A

ZATOZ



ZALOA OTADUY

Farmazian lizentziatua

Dermokosmetikan espezializatua

FARMALUR-era!

Toribio Etxebarria, 18


943 70 29 23

BURUAZALAREN ANALISIA



- Kaspa
- Azkura
- Ile erorketa
- Koipea

DERMATITISAK



- Orbanak
- Zimurrak
- Aknea
- Atopikoa
- Seborreikoa

AURPEGIAREN ANALISIA



D
I
E
T
E
T
I
K
A

PARAFARMAZIA

7. Etxebarria, 18-an

